



ALKIZAKO UDALA  
(GIPUZKOA)

## **UDALBATZARRAK 2012ko OTSAILAREN 28an EGINDAKO OHIKO BILKURAREN AKTA**

2012ko otsailaren 28an, Alkizako Udaletxean, arratsaldeko 20.30etan, Jon Umerez Urrezola Alkatearen Lehendakaritzapean behean aipatzen diren zinegotziak bildurik, ondorengo erabakiak hartu ziren :

ALKATEA : Jon Umerez Urrezola

ZINEGOTZIAK : Jose M<sup>a</sup> Aranzabe Urruzola  
Jose Ramon Hernandez Cristobal  
Koldobika Jauregi Zinkunegi  
Ainara Sarasola Arsuaga

Bere ezin etorria azaltzen dute: Ainara Zurutuza Ilundain eta Uxue Etxebeste Eizagirre

IDAZKARIA: Ane Gomez Urteaga

Ondorengo gaiak aztertu eta erabaki ziren:

- 1. Aurreko bilkuretako akten onespena.**
  - 2011ko urtarrilaren 31an egindako ohiko bilkuraren akta.
- 2. Alkatetza ebazpenen berri ematea.**
- 3. Fakturak eta ordainketak.**
- 4. IX. Aiztondo klasikoari "Patxi Alkorta memorialari" 2012ko ekarpena burutzea, hala badagokio.**
- 5. 2012 urterako udal zergen hobari eskaeraren azterketa, hala bada.**
- 6. Maitegi baserri ondoan dagoen borda berritzeko obra baimena eskaera, J.M.G.**
- 7. Garaikoetxe baserriaren terrenoetan mahasti bat landatzeko, terrenoa txukuntzeko obra baimena eskaera, X.U.A.**
- 8. Sarrola-Goikoa baserriari loturik dagoen Errota-gaña lursorua segregatzeko baimena, ondoren Igaran Errotari eranstekoa baimena emanaz, J.M.L. eta I.Z.S.**



ALKIZAKO UDALA  
(GIPUZKOA)

- 9. Beste batzuk.
- 10. Erregu, galdera eta mozioak.

.../...

### **LEHENENGO PUNTUA** **AURREKO BILKURETAKO AKTEN ONESPENA**

- 2012ko urtarrilaren 31ko ohiko bilkuraren akta. Irakurri ondoren bertaratuek aho batez onestu dute.

Akta Udaletxeko Iragarki Taulan eta Web orrialdean argitaratzea erabaki da.

### **BIGARREN PUNTUA** **ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA**

Ondoren aipatzen diren Alkatetza Ebazpenak eman direla adierazi du Udaleko Behin Behineko Idazkari-Kontuhartzaileak, bertaratuak jakinaren gainean geratu direlarik:

04/2012 Alkatetza Ebazpena, otsailaren 1ekoa, 2011 urteko bigarren goiheretako uraren tasaren udal errolda onartzea, ebazten duena.

05/2012 Alkatetza Ebazpena, otsailaren 1ekoa, Faktura txikien zerrenda onestea, ebazten duena.

### **HIRUGARREN PUNTUA** **FAKTURAK ETA ORDAINKETAK**

Ondorengo faktura zerrenda aurkeztu zen:

- ELECTRICIDAD ZIZURKIL	132,16€
- IZADI LABORATEGIA	145,14€
- TOLOSALDEKO MANKOMUNITATEA	12.413,08€
- CONTENEDORES IBARRA	293,22€
- EUDEL	300,51€
- ZURIARRAIN.	418,43€
-ARGITU	133,52€
- MONTTE	148,33€
-IRATZE	4.577,75€
-FONTANERIA ANTZIETA,S.L.	178,43€



ALKIZAKO UDALA  
(GIPUZKOA)

-TIMSAC ERAIKUNTZAK, S.L.	826,00€
-IBERDROLA	835,94€
-IBERDROLA	198,23€
-IBERDROLA	320,67€
-IBERDROLA	418,65€

Gaia azterturik bertaratuek aho batez ondorengoa,

ERABAKITZEN DUTE

LEHENA.- Guztira **21.340,06** eurotako kopurua duen faktura zerrendari onespena ematea.

#### **LAUGARRENGO PUNTUA**

#### **IX.AIZTONDO KLASIKOARI"PATXI ALKORTA MEMORIALARI" 2012KO EKARPENA BURUTZEA, HALA BADAGOKIO**

Ikusirik Aiztondo Klasikaren Batzordetik igorritako idatzia, non dioen 2012ko martxoaren 11an jokatu den IX. Aiztondo Klasikoa "Patxi Alkorta memorialaren" gastuei aurre egiteko 2012 urterako Alkizako Udalak burutu beharreko ekarpena 1.901,06 eurotan finkatzen duen.

Gaia azterturik bertaratuek aho batez ondorengoa,

ERABAKITZEN DUTE

LEHENA.- Aiztondo Klasikaren Batzordeari 1.901,06 eurotako ekarpena burutzea.

BIGARRENA.- 2012 ekitaldirako Udal Aurrekontuan gastu honi aurre egiteko partida nahikoa aurreikusteko konpromezua hartzea.

#### **BOSTGARRENGO PUNTUA**

#### **2012 URTERAKO UDAL ZERGEN HOBARI ESKAERAREN AZTERKETA, HALA BADA**

Ikusirik 2012 urterako udal zergen eta tasen hobariak onestu direla, ondasun higiezin gaineko zergaren kasuan, famili ugariak izateagatik eta eguzki aprobetxamendu termiko edo elektrikorako sistemak instalatuta dituzten ondasun higiezin kasuetan.

Ikusirik Alkizako Udalak, 2012ko urtarrilaren 25ean deialdia zabaldu zuela, hobari edo bonifikazio eskaerak egiteko, azken eguna 2012ko otsailaren 24a izan zelarik.



ALKIZAKO UDALA  
(GIPUZKOA)

Ikusirik, goian aipaturiko epean bost hobari eskaera egin direla, famili ugariak izateagatik eta eguzki aprobetxamendu termiko edo elektrikorako sistemak instalatuta izateagatik.

Ikusirik, bost eskaera hauek baldintza guztiak betetzen dituztela aipaturiko hobariak jasotzeko.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

#### ERABAKITZEN DU:

LEHENA: I.U.U. Jaunak egin duen 2012 urterako ondasun higiezinaren gaineko zergaren hobari eskaera onestea, hau da, Kuota osoaren %25eko hobaria.

BIGARRENA: J.R.H.. Jaunak egin duen 2012 urterako ondasun higiezinaren gaineko zergaren hobari eskaera onestea, hau da, Kuota osoaren %25eko hobaria.

HIRUGARRENA: J.M.G. Jaunak egin duen 2012 urterako ondasun higiezinaren gaineko zergaren hobari eskaera onestea, hau da, Kuota osoaren %25eko hobaria.

LAUGARRENA: G.C. andreak egin duen 2012 urterako ondasun higiezinaren gaineko zergaren hobari eskaera onestea, hau da, Kuota osoaren %25eko hobaria.

BOSTGARRENA: M.K.M. andreak egin duen 2012 urterako ondasun higiezinaren gaineko zergaren hobari eskaera onestea, hau da, Kuota osoaren %30eko hobaria.

SEIGARRENA: Erabaki honen berri interesatuei ematea.

#### **SEIGARRENGO PUNTUA**

#### **MAITEGI BASERRI ONDOAN DAGOEN BORDA BERRITZEKO OBRA BAIMENA ESKAERA, J.M.G.**

Ikusirik J.M.G. jaunak eginiko eskaera, non Maitegi baserri ondoan dagoen boda berritzeo obra baimena eskaera egiten duen.

Ikusirik, J.M.G. jaunak aurkeztutako aurrekontuan zehazten denez, bordaren egitura ukitu egingo dela obra egitean, beharrezkoa egiten delarik horrelako obretan, arkitekto batek eginiko proiektu bat.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

#### ERABAKITZEN DU:

BAKARRA: J.M.G. jaunari jakinarazi, Maitegi baserri ondoan dagoen boda



ALKIZAKO UDALA  
(GIPUZKOA)

berritzeko obra baimena eman ahal izateko, Udaletxe honetan dagokion obra proiektua aurkeztu beharko duela.

### **ZAZPIGARRENGO PUNTUA**

**GARAIKOETXE BASERRIAREN TERRENOETAN MAHASTI BAT LANDATZEKO, TERRENOA TXUKUNTZEKO OBRA BAIMENA ESKAERA, X.U.A.**

Ikusirik X.U.A. jaunak eginiko eskaera, non Garaikoetxe baserriaren terrenoetan, konkretuki 129 partzelan, 1 rezintoan, mahasti bat landatu nahi duenez, terrenoan txukuntzeko lanak egiteko obra baimena eskaera egiten duen. Gipuzkoako Foru Aldundiak proiektu honi emaniko oniritziaren ziurtagiria aurkezten du X.U.A. jaunak.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: X.U.A. jaunak eginiko obra baimena eskaera onestu, hau da, Garaikoetxe baserriaren terrenoetan mahasti bat landatzeko, 129partzela, 1rezintoan, terrenoa txukuntzeko lanak egiteko obra baimena ematea.

BIGARRENGOA: Erabaki honen berri interesdunari ematea.

HIRUGARRENA: Indarrean dauden Ordenantza fiskalen arabera dagokion kitapena onartzea.

### **ZORTZIGARRENGO PUNTUA**

**SARROLA-GOIKOA BASERRIARI LOTURIK DAGOEN ERROTA-GAÑA LURSOROA SEGREGATZEKO BAIMENA, ONDOREN IGARAN ERROTARI ERANSTEN BAIMENA EMANAZ, J.M.L. ETA I.Z.S.**

Ikusirik J.M.L. jaunak eginiko eskaera, non azaltzen duen Tolosako Sarrola-Goikoa baserriaren jabea dela eta baserri honi lotuta Errota-gaña terrenoa duela 1900 metrotakoa, terreno honen segregazio baimena eskatzen duelarik, aldi berean ondoan dagoen Igaran edo Iguaran errotari eranste baimena eskaera egiten du I.Z.S. jaunak.

Ikusirik Sarrola-Goikoa edo Sarrola-Garaikoa baserriaren deskripzioa ondorengoa dela:

*“Caseria llamada Sarrola-goikoa o Sarrola-garaikoa, finca rústica señalada con*



ALKIZAKO UDALA  
(GIPUZKOA)

*el número dieciocho en el barrio de San Blas o Usabal, de esta villa de Tolosa. Consta de piso llano, otro alto y desván y ocupa quinientos treinta y ún metros cuadrados de terreno dolar, con inclusión de una tejavana, antepuertas y terrenos de su perímetro, confinando por Este con camino carretil, por Sur con heredad propia y pertenecidos de Sarrola del medio y por Oeste y Norte con los del mismo Sarrola del medio. Son pertenecidos suyos:*

*.....j) Terreno herbal llamado Errota-gaña, sito en jurisdicción de Alquiza, lindante por Este con terreno del caserío Irazabal, por Sur con el del caserío Basaite, por Oeste con el de Zubieta y por Norte con camino carretil. Mide diecinueve áreas.”*

Ikusirik Errota-gaña terrenoa Igaran edo Iguaran errotaren ondoan dagoela. Errota honen deskripzioa ondorengoa delarik:

*“Rustica: El molino llamado Igaran o Iguaran señalado con el número cuatro, sito en la jurisdicción de la villa de Alquiza (Alkiza).*

*Su edificio tiene un terreno solar de ciento veintinueve metros cuadrados; consta de piso bajo, principal y desván y linda: por Oriente y Norte, con sus antepuertas contiguas accesorias; y por Mediodía, con la huerta pegante también y accesoría, y por Poniente, con las mismas antepuertas.*

*Estas antepuertas juntamente con la antepara, miden setecientos ochenta y un metros cuadrados y linda; Oriente, camino carretil; Mediodía, la regata o río Alquiza-erreka y el molino y la huerta; Oriente, la regata o río Alquiza-erreka, y Norte, terrenos de las caserías Bengoechea e Iribitia.*

*La huerta igualmente aneja al molino, mide tres áreas y cincuenta y nueve centiáreas y linda: Oriente, el molino del cual depende; Mediodía y Poniente, la regata o río Alquiza-Erreka, y Norte, antepuerta.*

*En la planta baja del molino se hallan instaladas dos piedras de moler grano movidas por la fuerza de un rodete, en el que se actúa el saldo de agua del río Alquiza-Erreka, cuyo caudal es conducido por medio de una presa cauce y depósito de su antepara.*

*Finca adquirida por Don Iker Zabala Saizar el 6 de noviembre de dos mil tres, por escritura pública de compra-venta a Don Policarpo Odriozola Segurola ante el notario del Ilustre Colegio de Pamplona, con residencia en San Sebastian, Don Aquiles Paternotte Suarez.*

*Inscripción: Tomo 1494, libro 22 de Alkiza, folio 147, finca número 409, del Registro de la Propiedad de Tolosa.*

*Tiene terreno pertenecido: Diez áreas y ochenta y dos centiáreas de terreno sembrado y manzanal nombrado “Errotaburua” confina por Norte con camino carretil. Por Este con pertenecidos de Iribetia, por sur con un canal de aguas y*



ALKIZAKO UDALA  
(GIPUZKOA)

regata y por Oeste con pertenecidos de Igaranzabal.“

Gaia aztertutrik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: J.M.L.M. jaunak eskaturiko Sarrola-goikoa baserriari loturik dagoen Errota-gaña terrenoaren segregazio baimena ematea, Errota-gaña terrenoak 1900 metro dituelarik.

BIGARRENGOA: 1900 metro duen Errota-gaña terrenoa, I.Z.S. jaunaren jabetzakoa den Igaran edo Iguaran errotari eransteke baimena ematea.

HIRUGARRENA: Indarrean dauden Ordenantza fiskalen arabera dagokion kitapena onartzea.

LAUGARRENA: Erabaki honen berri J.M.L.M. eta I.Z.S. Zabala Saizar jaunei ematea.

### **BEDERATZIGARRENGO PUNTUA** **BESTE BATZUK**

#### **9.1. INTXAUR HANDI BASERRIAN EGITEN ARI DEN ETXEBIZITZA BERRIRAKO UR HORNIDURA OROKORRETIK UR LOTURA EGITEKO BAIMENA ESKAERA, E.S.**

Ikusirik E.S. jaunak eginiko eskaera, hau da, Intxaur Handi baserrian egiten ari den etxebizitza berrirako ur hornidura orokorretik ur lotura egiteko baimena eskaera.

Gaia aztertutrik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: E.S. jaunak eginiko eskaera onestu, hau da, Intxaur Handi baserrian egiten ari den etxebizitza berrirako ur hornidura orokorretik ur lotura egiteko baimena ematea.

BIGARRENGOA: Erabaki honen berri interesdunari ematea.

### **HAMARGARREN PUNTUA** **ERREGU, GALDERA ETA MOZIOAK**



ALKIZAKO UDALA  
(GIPUZKOA)

Ez dira aurkezten.

*Eta aztertu beharreko beste gairik ez dagoenez, Lehendakari Jaunak bilkura 23.30 etan amaitutzat eman du eta akta hau jaso da, etorri diren guztiek izenpetu dutena eta Idazkari naizen honek, aztertu denaren benetako adierazgarria dela uste duena.*